


IRAKURKETA-GIDA

Margolana

Igor Elortza

begiko



Margolana

Igor Elortza



LIBURUAREN AURKEZPENA

Egilea

Igor Elortza Aranoa Durangon jaio zen 1975eko abuztuan, eta kale-giroan hazi, jatorri baserritarreko langile familia batean. Ingeniaritza Teknikoa Topografian titulua atera zuen lehenik, eta ondoren Euskal Kulturaren Transmisioa graduondokoa, eta Enpresa eta Erakundeen Komunikazio Zuzendaritza masterra.

«Wordker» moduan aurkeztu izan du bere burua: berbagin, palabrador, parolétarien. 1991tik hasita, hiru hamarkadatan beste hainbeste belaunalditako bertsolariekin aritu da plazan. Bi mila saiotik gora egin ditu honezkero, bost bider izan da Bizkaiko txapeldun, eta Euskal Herriko lau finaletan lehiatu da.

Bertsogintza berritu duten egitasmoetan ez ezik, euskal kulturagintzako hainbat elkarte eta egitasmotan ere hartu izan du parte, eta bestelako adierazpide artistiko batzuetan ere jarduten du: bertso-musika taldeak, antzerki eta telebista gidogintza, gazte literatura, artikulugintza, publizitatea, markagintza...

Liburua

Nestor eta Jokin sekula arazotan sartu ez diren 16 urteko bi gazte arrunt dira. Elurrak herria zurututako egun batean, ikasleen arreta bereganatzea ezinezkoa dela ikusita, Bittorrek, Historia eta Arte irakasleak, institutuan agertutako margolan baliotsu bat eta haren bozetoa erakutsiko die ikasleei. Margolana ikusi ahal izango duten azken aukera da, hurrengo egunean Parisko Louvrera eramango baitute. Bozetoak liluratu egingo du Jokin, eta bere laguna bozetoa lapurtzeko kobentzituko du.

Lapurreta ondorengo egunak ez dira samurrak izango, eta egunak pasatu ahala egoera korapilatzen joango da: lapurreta albistegietara iritsiko da, eskolazain ilun eta beldurgarri bat atzetik izango dute, ustekabeko maitasun kontuak azalduko dira, polizia etxeko itaunketa, Interpola...

Bi asteren buruan, Poliziak ustez kasua argituko du, baina Nestor eta Jokin sekula ez dira zirena izango.

Zergatik irakurri liburu hau?

Kontakizun honek edozein institututan aurki genezakeen lagun taldea du protagonista. Era berean, protagonistek adin horretako edozein gaztek izan litzakeen zaletasunak dituzte: teknologia berriak, parranda, neskak... Hala ere, bada guzti horren gainetik gailentzen den afizioa bat: komikiak. Horrek, gazteek artearekiko sentipen berezi bat izatea eragingo du, eta Bittorrek margolan eta bozeto balioetsuak erakusten dizkietenean, ezin izango diote tentazioari eutsi.

Igor Elortzaren lehen eleberriak pertsonaia ilun eta misteriotsuak, maitasuna, intriga, Interpola eta Louvreko museoa nahasten dituen ia korapilo askaezina dakar.

Artearen lilurak mugarik ez daukala erakusten duen intrigazko istorio erakargarria da *Margolana*. Arteaz zipriztintzeaz gain, irakurtzen hasi bezain laster kontakizun bizi honen atzaparretan eroriko dira irakurleak.

Margolana eleberriagatik Igor Elortzak JUUL saria jaso du 2018an, Euskal Herriko ikastoletako ikasleek liburu gustokoenari ematen dioten saria.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Irakurritakoa ulertzea, interpretatzea eta balioestea, norberaren sentsibilizazio estetikoa garatuz.

Ideiak eta sentipenak komunikatzeko gaitasuna garatzea.

Literatura-testua mundua ulertzeko leihoa izatea.

Jatorrizko bertsioren kasuan, eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutzea, interpretatzea eta balioestea.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea.

Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea.

Arte-adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, bai bere ingurune hurbilekoak, bai eta urrunagokoak ere, ulertzeko kultura guztiek lagundu dutela gizateriaren garapen artistikoan.

Norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, norbanakoen arteko desberdintasunak errespetatzeko.

Sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.

Matematikarako gaitasuna

Elementu matematikoak ezagutzea eta askotariko egoeratan erabiltzea. Kalkuluak segurtasunez eta konfiantzaz egitea, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko.

Zientziarako gaitasuna

Problemak ebaztea eta ikerketa soil batzuk egitea, hipotesiak formulatzea, eta ondorioak ateratzea.

Teknologiarako gaitasuna

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informazioa lortzeko tresna direla ulertzea.

Arterako gaitasuna

Inpresionismoaren nondik norakoak eta mugimendu horretako artista nagusiak ezagutzea eta identifikatzea.

Puntillismoaren teknika ezagutzea eta identifikatzeko gai izatea.

Margolanak gozamen-iturritzat hartzea.

Komikien, komikietako pertsonaien eta komiki egileen gaineko ezagutza handitzea.

Artea herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea.

ZE HAR-GAITASUNAK

Elkarbizitzarako gaitasuna

Gelako ikaskideen eta lagun taldeko pertsonen artean egon daitezkeen desberdintasunak errespetatu, ulertu eta aintzat hartzea.

Adiskidetasunaren eta pertsonen arteko harreman positiboan onuraz jabetzea.

Elkarbizitzaren arauak betetzea, gizarte-harremanetan ongizatea eta harmonia sustatzeko.

Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna

Erronka berrien aurrean, ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea era ausart eta eraginkorrean burutzea.

Izaten ikasteko gaitasuna

Erabakiak hartzean, ekintzen ondorioak bere gain hartzeko ardura garatzea.

Balioetan heztea

Urduritasun, kezka eta ikara etengabea, lorik ezin egina, itaunketak... Lapurreta egin eta ondorengo egunetan, Nestorrek bere ekintzaren ondorioak bere gain hartu beharko ditu, eta hondoa joko du. Merezi al izan du? Behin lapurreta burututa ere, egindakoa zalantzan jarriko dute, eta behin baino gehiagotan, zuzentasunez jokatu eta lapurtutakoa bueltan eman ala ez erabaki beharrea aurkituko dute beren burua. Eleberri honek, bero-beroan hartutako erabakiei eta horien ondorioei buruz hausnarketa egitea ahalbidetuko die irakurleei.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Nestor Burma · 1. jarduera

Margolana 16 urteko mutiko baten ikuspegitik kontatuta dago. Lehen pertsona erabiltzeak istorioari sinesgarritasuna eta gertutasuna ematen diola nabarmenduko dugu, eta, liburua irakurtzean, Nestor edo gainontzeko pertsonaiaren batekin identifikatuta sentitu diren galdetuko diegu ikasleei.

Hasteko, Nestor, liburuko protagonista, aztertuko dugu. Horretarako, narratzaileak bere burua deskribatzeko erabilitako pasarteak eta narrazioan zehar gertaerei buruz emandako iritziak bilatuko ditugu liburuan.

Nestorren esanetan, Jokin eta bera ez dira gaizkileak, bi mutil ameslari arrunt besterik ez dira. Zerk bultzatu ditu orduan lapurreta egitera? Galdera horri erantzun bat eman eta lapurretak haientzat zer suposatu zuen aztertzeko, ikasleek liburuko zenbait pasarte azaldu beharko dituzte.

Amaitzeko, Nestor hobeto ezagutu asmotan, kontakizunean ageri diren beste pertsonaiekin dituen harremanak eta haiekin nola jokutzen duen aztertuko dugu: Bittor, Ane, gurasoak...

Institutuko lagunak · 2. jarduera

Jarduera honetan, ikasleek istorioan nolabaiteko protagonismoa duten pertsonaiak deskribatuko dituzte. Horretarako, narratzaileak emandako informazioa (deskribapen fisikoa eta psikikoa eta narratzaileak haietaz duen iritzia) eta pertsonaiek istorioan egindakoak hartuko dituzte kontuan, eta informazio horrekin guztiarekin, pertsonaia bakoitzaren irudi bat osatu beharko dute.

Ondoren, pertsonaia hauetako bakoitzaren inguruan duten pertzepzioaz eta iritziaz hitz egingo dugu. Ikasleen subjektibotasunaren ondorioz, ziur aski iritzi ezberdinak sortuko dira. Desadostasun hau aurreiritziei eta askotan ondo ezagutu gabe pertsonetikiko sortzen ditugun uste okerrei buruz hausnarketa egiteko baliatuko dugu.

La Gioconda ebatsi zutenekoa · 3. jarduera

Lapurreta egin ondorengo egunetan, Nestor ezinegonak eta beldurrak jota bizi da. Barrena lasaituko dion informazio egarri, Kultur Etxeko hemerotekara joatea eraba-

kiko du. Han, 1911n *La Gioconda* ebatsi zutenekoaren aipamena egiten duen albiste batek erakarriko du bereziki.

Jarduera honetan, bi lapurretak, 1911n Vincenzo Peruggiak egindakoa eta Nestorrek eta Jokinek burututakoa, alderatzea proposatuko diegu. Xehetasun guztiei erreparatuz, bien arteko berdintasunak eta desberdintasunak azaldu beharko dituzte.

Azkenik, liburuko protagonisten lapurretaz hitz egingo dugu. Sinesgarria al da Jon Mirande institutuan burututako lapurreta? Zer egiten du hain margolan balioetsuak institutu batean? Bitorrek burugabe jokatu al zuen ikasleei margolana erakustean? Inork ikusi gabe institutuan sartzea hain erraza al da?...

Lapurreta bat, hamaika emozio · 4. jarduera

Bi aste besterik ez dira igaroko Bitorrek ikasleei *Alkandora urdin argidun emakumea negarrez* margolana eta bere bozetoa erakutsi eta Poliziak ustez kasua argitu arte. Bi aste horietan, gertaerek eraginda, hainbat emozio (horietako asko, bereztat berriak direnak) biziko ditu Nestorrek: euforia, tentsioa, larritasuna, itolarria, bakardadea, ikara, gozamena, harrotasuna...

Jarduera honetan, liburutik ateratako zenbait pasarte irakurri eta kontakizuneko zein uneri dagozkion azaltzea proposatzen diegu ikasleei. Horrez gain, beren hitzak nahiz liburukoak erabiliz, Nestor une horietan nola sentitzen den azaldu beharko dute.

Azkenik, liburuaren egiturari buruz hitz egingo dugu ikasleekin. Gertaera garrantzitsuenak identifikatu eta horiek eragindako ondorioak aztertzeko eskatuko diegu.

Ikertu

Alkandora urdin argidun emakumea negarrez

Alkandora urdin argidun emakumea negarrez. Horra hor liburuko protagonistak lapurreta egitera bultzatu dituen objektu desiragarria. Zer itxura du Nestor eta Jokin txunditu dituen margolanak? Errealak ala idazleak asmatutakoa da? Horixe da ikasleek ikertu beharko dutena.

Ikasleek liburuan margolan horri buruz agertzen den informazio guztia bilduko dute lehenik.

«Margolanak negarrez ari den emakume bat erakusten du. Atzeko aldean leiho bat du zabalik, eta kanpoan elurra ari du. 32 bider 21 zentimetroko margolana da, oholean margoturiko olio pintura. Igeltsuz eta kolaz landuriko makal oholean margotua. Puntillismoaren aitzindari baten lana

da, teknika hori erabiliz egina baita eta margolanaren atzealdeko oharra-
ren eta ikerketen arabera 1879koa baita. Lanaren izenburua ere dataren
azpian azaltzen da, frantsesez idatzia, eta lanaren goialdearen erdian J.
P. inzialak. Zenbait adituren hitzak aipatzen dituzten zurrumurruen
arabera, Sena ibaiaren ertzean margotzen zuen eskeko batena izan liteke
margolana.»

Ondoren, informazio hori baliatuta, interneten margolana bilatzen saiatu beharko
dute. Bilaketa egiterakoan, ikasleek «puntillismo» edota «Louvre» bezalako hitzak
erabiliko dituzte, eta bidean, bilaketari esker, kontzeptu horiekin lotutako hainbat
informazio xurgatzeko aukera izango dute.

Komikien mundua

Protagonistek komikiekiko duten zaletasuna aitzakia hartuta, komikien munduan
murgiltzeko gonbita egingo diegu ikasleei. Hasteko, komikiak irakurtzeko
zaletasunik duten eta komikietako zer pertsonaia ezagutzen duten galdetuko
diegu.

Liburuan supergizaki eta detektibe, inspektore, espioi eta abarren istorioetako
hainbat pertsonaia aipatzen dira: *Batman, Aquaman, Barbarella, Captain America,*
The Fantastic Four, Spiderman, Superman, Watchmen, Nestor Burma, Alack Sinner,
Bruno Brazil, Charlie Chan, Spirit, Sam Pezzo eta Victor Sackvill... Ikasleei
proposatuko diegu pertsonaia hauetako bat aukeratu eta hari buruzko
informazioa bilatzeko: nork eta noiz sortua den, zein herrialdetakoa den, zein
den haren ezaugarri nagusia, zer itxura duen, zer supergaitasun duen...

Amaitzeko, komikigintzak Euskal Herrian duen presentziaz hitz egingo dugu.
Ezagutzen al dute euskal komikigilerik? Adibide batzuk emango dizkiegu: Dani
Fano, Patxi Huarte «Zaldieroa»... Ondoren, komikigintzaren inguruan gurean
antolatzen diren ekintzei buruz hitz egin dezakegu: Getxoko Komiki Azoka,
Xabiroi aldizkaria...

Eztabaidatu

Lapurreta al da?

Liburuko pasarte hau irakurriko dugu:

«Guk ez genuen eta ez dugu geure burua gaizkiletzat, ez baitugu ezer
txarrik egin. Nik ez nuke lapurrak garenik ere esango, inola ere ez. Gu
artelan batek liluratu eta balentria bat egitera bultzatu gintuen mutiko
bi gara. Artelan baten indarrak gatibaturiko mutiko bi.»

«Hauxe zen nire galdera bart, institutuko liburutegian giltzaperaturik, leihotik begira nengoela. Hauxe da nire galdera orain ere.»

«Gaizkilea al da artelan batek txunditu eta eskuratzeko edozer egitera bultzatu duen gaztea?» (96.-97. orr.)

- Gaizkileak al dira Nestor eta Jokin? Ez dute ezer txarrik egin?
- Ezer txarrik egin ez badute, zer dela eta lapurreta ondorengo estuasuna?
- Artelaren lilurak harrapatuak izatea edo gaztea izatea (eta ondorioz bulkadaz eta bihozkaidez jokatzeta), lapurreta burutzeko aitzakia direla esango zenuke? Lapurreta justifikatuta dago?
- Zergatik daude zalantzan, bai margolana eta bai bozetoa itzuli ala ez?

Nestorrek nahi zuena lortu du, eta onik atera da. Amaiera erreala al da? Zer gertatuko litzaioke ertzainek harrapatu balute? Arriskuak merezi al du?

Festa eta alkohola

Ikerketen arabera, gazteak gero eta gazteago hasten dira alkohola kontsumitzen. Alkohola lagunartean kontsumitzen dute, eta gazteentzat taldean eta gizartean integratzeko tresna bilakatu omen da. Datu hauei buruzko hausnarketa egin, eta gazteak alkohola edatera bultzatzen dituen arrazoiei eta alkohol gehiegi kontsumitzeak ekar ditzakeen ondorioei buruz hitz egingo dugu ikasleekin. Institutuan urtero egin ohi duten festari buruzko liburuko pasarte hauek irakurriko ditugu:

«Urtean behin, gainontzeko egunak ahaztu, hierarkia oro hautsi eta halako anaitasun lagunkoiak bat egitea denok. Hori da ohitura. Irakasleak ere mo-zorroto ohi dira, barru-barruko nerabea berreskuratu eta ikasleekin sekretutxoei buruz eleketan aritzeko beta hartzen dute. Elkarri gorroto dioten irakasleek irri egiten diote elkarri. Ikasleek ere bai. Zoragarria da».

«Edan genuen bat, edan genituen bi. Bitartean, pistan dantza egiten zute-nei begiratu eta barre gaiztoak egin genituen. Hirugarren garagardoa hustu nuenerako, txolintzen hasi nintzen».

«Ane etorri zitzaidan gogora. Ez nekien zein jolasetan parte hartzen ari nintzen. Hala ere, jolastu egin nahi nuen. Sei garagardo haien bultzada bari-rik, ez nintzen ausartuko, baina ez dut esan nahi gura ez nuena egitera bultzatu nindutenik, «zergatik ez!» esaten lagundu zidatela baino».

- Zergatik lotzen da festa alkoholarekin? Zergatik edaten dugu? Beharrezkoa al da alkohola kontsumitzea ondo pasatzeko?
- Alkoholak izaera aldatzen digu? Alkoholaren eraginez, egindakoaz damutzeko moduko gauzak egiten ditugu? Sekula gerta al zaizue halakorik?
- Gazteak goizegi hasten dira edaten?

- Zer egin daiteke hori ekiditeko? Adingabekoei alkohola saltzea debekatzen duen legea baliagarria al da?

Sortu

Aureliok den-dena zekien

Demagun Aureliok, kontakizuneko pertsonaia misteriotsuenak, Nestor eta Jokin Bitorren bulegoko leihotik irteten ikusi zituela lapurretaren egunean. Aureliok hasieratik den-dena zekien, baina ahoa ixtea erabaki zuen.

Literatura sorkuntza lantzeko jarduera bat proposatuko dugu: kontakizuna Aurelioren ikuspegitik kontatuko dute, hau da, narratzailea Aurelio izango da. Hala ere, istorioak liburuaren argumentuarekiko koherentea izaten jarraitu beharko du.

Idazten hasi aurretik ideiak ongi antolatu beharko dituzte, eta hainbat aspektu kontuan izan: Nolakoa da Aurelio? Nola kontatuko luke istorioa? Zergatik ez zituen Jokin eta Nestor salatu? Zein zen haren plana? Nola amaituko da istorioa?

Hona hemen hasiera:

Elurra ari zuen. Berogailua ez zebilen eta teknikoa bidean harrapatuta zegoen. Kontadoreen armairura abiatu nintzen, eta orduantxe ikusi nituen Umemoko horiek Bitorren bulegotik irteten. Jarraitu egin nien, Segundorenean sartu ziren. Bietako bat komunera joan zen, eta irtetean, ikusi egin ninduen. Bere aurpegiak dena esaten zuen. Ezer ez esatea erabaki nuen. Nik neure plana nuen.

Liburua binetetan

Margolana liburuak intrigaz eta misterioz beteriko istorioa kontatzen du, komiki bihurtzeko aproposa. Bada, horixe egingo dugu jarduera honetan. Ikasle bakoitzak liburuko kapitulu edo pasarte bat aukeratu eta istorioa bineten bidez irudikatu beharko du. Zer aurpegi jarriko lukete Jokinek eta Nestorrek biak protagonista dituen komiki bat sortu dutela jakitean?

Lanean hasi aurretik, komeni da komikiaren egitura oso argi izatea: zenbat bineta izango dituen, bineta bakoitzean zer azalduko den, bunbuiloetan zer idatziko duten, narratzailearentzako tarterik utziko duten, komiki mutua ala hitzezkoa izango den, onomatopeiak erabiliko ditzuzten... Irudiari dagokionez ere, zenbait erabaki hartu beharko dituzte: estilo grafikoa, koloreak edo zuri-beltza...

Hizkerak

Narratzaileak bi erregistro ezberdin darabiltza kontakizunean: lagunarteko hizkera, lagunekin solasean ari denean; eta, hizkera jasoagoa eta landuagoa, bizitako zenbait egoera eta emozioak azaltzen dituenean.

«—Eskailera madarikatu hauek lurperatu egingo naitek! —kexatu nintzen gora iritsi orduko.

—Ez duk hainbesterako, hi! —erantzun zidan Jokinek—. Zer daramak hor gordeta?

—To! Har ezak! Begi zorrotzekoa haiz, gero!

—Zer uste huan, ba, ez nuela ezer espero? Sar hadi. Baina ez ahaztu zapatilak erantztea. Ezagutzen duk ama!».

«Apalategi baten atzealdean kukukurik geunden Jokin eta biok, liburu baten orrialdeak baino zarata gutxiago eginez. Aureliok linterna piztu zuen, eta alde batera eta bestera begiratu. Argi-lerroak gure buru gainean zebiltzan orain mehatxari. Apalen, mahaien, aulkien eta liburuen arteko zirrikietan zehar ezker-eskuma eta goitik behera hegaldi beldurgarri bat marrazten zuten».

Jarduera honetan, adibide bezala jarritako pasarteak oinarri hartu eta erregistroak aldatuta, bi testuak berridaztea proposatuko diegu ikasleei. Hau da, lehenik, hizkera landuago bat erabiliz, liburutik ateratako elkarrizketa berridatzi beharko dute, eta jarraipena asmatu. Ondoren, gazte hizkera informala erabiliz, istorioko liburutegiko pasarte berridatzi eta haren jarraipena idazten segituko dute, beren lagun bati kontatzean erabiliko luketen hizkera erabiliz.

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

1. Nestor Burma

- Liburuko protagonistak ez du bere itxurari buruzko datu asko ematen, baina, tarteka, bere izaera eta nortasuna erakusten dizkigu. Aztertu bere sentipenez mintzatzen den liburuko pasarteak, eta azaldu nor den Nestor.

.....
.....
.....

«—Hi al haiz, Nestor? —horrela deitzen nau Jokinek azken aspaldion».
Azaldu nondik datorren Nestor Burma ezizena.

.....
.....
.....

- Azaldu Nestorren eta Jokinen arteko harremana. ««Ez nago bakarrik», pentsatu nuen. Jokin eta biok geunden. Elkarrekin.

.....
.....
.....

- Azaldu: «Stop. Atzera. Eject. CDa jaso eta armairuan gorde nuen inork inoiz begiratuko ez duen tokian. «Berdin-berdina da!», pentsatu nuen neure kautan».

.....
.....
.....

- Azaldu protagonistak egindako gogoeta hau : «Gu komikiak irakurtzen eta musika entzuten dugun mutil ameslari arrunt bi besterik ez gara. Ginen, akaso».

.....
.....
.....

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

2. Institutuko lagunak

Idatzi liburuko protagonistaren inguruan ageri diren eta nolabait berarengan eta liburuaren argumentuan eragina duten pertsonaien erretratua.

- **Jokin**

.....
.....
.....
.....

Irakurri eta azaldu Jokini buruzko pasarte hau: «Marrazki hura ikaragarri ona omen zen. Sekula ikusi zuen binetarik hoberena. Mugimendua omen zuen. Emakumeak negar egiten ei zuen benetan. Sudurrarekin keinu egiten ei zuen mukiei eusteko. «Fffrrrr, fffrrr», egiten zuen Jokinek. Malkoak emakumearen begitartean irristatzen omen ziren, distira eginez».

.....
.....
.....

- **Bittor**

.....
.....
.....
.....

Irakurri Bittorri buruzko pasarte hau, eta azaldu Nestorrek zer iritzi duen berataz: «Ikasgelan gehiengoaren arreta bereganatzeko gaitasuna duen irakasle bakarra da. (...) Hitzak aukeratzekoan beti asmatzen duelako akaso.»

.....
.....
.....

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

2. Institutuko lagunak (jarraipena)

- **Aurelio**

.....
.....
.....
.....

Azaldu Aureliori buruzko pasarte hau: «Alemaniarraren balizko kidea ezin daiteke izan Aurelio. Ezinezkoa da. Saltsa horretan dabilenak jakin bide du zertan ari den.»

.....
.....
.....

- **Ane**

.....
.....
.....
.....

- **Kepa Armiarma**

.....
.....
.....
.....

- **Mikel**

.....
.....
.....
.....

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

3. *La Gioconda* ebatsi zutenekoa

- Lapurreta egin ostean, Nestorrek Louvre museoarekin zerikusia duten albisteak bilatu ditu hemerrotekan. 1911n *La Gioconda* ebatsi zutenekoari erreferentzia egiten dion albiste batek erakarri du bereziki. Hona hemen lapurretari buruzko zenbait datu:
 - Vincenzo Peruggia izeneko 31 urteko gazte italiar batek lapurtu zuen. Louvreko langilea izandakoa zen, eta irekiera-ordu arruntetan museoan sartu eta armairu batean ezkutatu zen. Margolanari markoa kendu eta, arroparen azpian ezkutaturik, besapean zeramala irten zen.
 - Ustez, Vincenzo Peruggiak Italiara, «sorterrira», eraman nahi zuen Gioconda.
 - Susmoak Guillaume Apollinaire poeta frantsesarengana bideratu ziren. Bi ziren bere aurkako probak: batetik, Marinetti futuristaren arte berriari bidea egiteko museoak erre beharraren ideiarekin bat egitea; eta, bestetik, Louvreko estatua batzuen lapurreta gai nagusitzat zuen nobela bat idatzi izana.
 - Peruggiak Italiako zenbait sektoreren goraipamena izan zuen, abertzaletasun ekintza gisa hartua izan zen, eta hilabete gutxi batzuk bakarrik igaro zituen espetxean.
- Aztertu bi lapurretak, Nestor eta Jokinek egindakoa, eta 1911n Peruggiak egindakoa, eta adierazi zer antzekotasun eta desberdintasun dituzten. Ipini arreta xehetasun guztietan: lapurreta burutzeko modua, lapurren profila, zerk bultzatu zituen lapurrak, zergatik lapurtu zuten, lapurtutako lanaren garrantzia, lapurretek zer amaiera izan zuten...

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

4. Lapurreta bat, hamaika emozio

Bi aste igaro dira lapurretaren plana mamitzen hasi eta Poliziak ustez kasua argitu arte. Denbora tarte labur horretan, liburuko protagonistak errusiar mendi emozionala bizi izan du. Adierazi pasarte hauek kontakizuneko zein uneri dagozkion, eta azaldu, zure hitzak edo liburukoak erabilia, nola sentitzen den une bakoitzean.

«—Ondo zegok! Ondo. Gaur balentriatarako gogoia diat neuk ere. Eroarena egingo diagu! Gustatzen zaidak ideia. Primerakoa duk, Jokin! Ados, Jokin!».

.....
.....
.....

«Etorritako bide berberetik joan ginen, eraikinen atzeko aldetik futbito-zelaiaren alboko ateraino. Handik kanpora irtetea, zezen bat atzetik segika datorkizun ametsetik esnatzea bezalako zerbait izan zen».

.....
.....
.....

«Eskaileretan behera, jendeak ez zuen beste ezeri buruz berba egiten: lapurretalapurretalapurreta».

.....
.....
.....

«Komunera bidean Aneren eskuaren hotza sentitu nuen sorbaldan. Larritu egin ninduen, baina larritasun atsegina zen. Bihotza taupadaka nuen. Taupada geldoak ziren, sendoak».

.....
.....
.....
.....

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

4. Lapurreta bat, hamaika emozio (jarraipena)

«Nik argi nuen niri zegokidanean, gau bateko kontua izan zela, ez nuela Ane maite... bueno bai, neure erara maite nuen. Lagun gisa».

.....
.....
.....

«Apalategi baten atzealdean kukuturik geunden Jokin eta biok, liburu baten orrialdeak baino zarata gutxiago eginez. Aureliok linterna piztu zuen, eta alde batera eta bestera begiratu».

.....
.....
.....

«Bitxia da legez kanpo aritzearen sentsazioa. Ezin diozu edonori edozer esan eta inori ezer ez esatea da egokiena edozein kasutan, eta horrek, mapetan azaltzen ez den toki batean kokatzen zaitu, auskalo zein zulo ikusezinetan. Eta zulo ilun horretan ez dago inor».

.....
.....
.....

«—... esan dizuet lehenago ere, behetik jota ehun aldiz esan dizuet dagoeneko..., nik ez dakit ezer».

.....
.....
.....

«Eta hementxe dago, duela urte dexente aitonak eskuz landutako haritzezko kutxan. Ikaragarri ederra da. Sekula ikusi dudan margolanik ederrena. Nirea da. Neurea».

.....
.....
.....

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

Irakurmen-testa

Pentsatu ondo galderetan, eta markatu erantzun zuzenak.

1. Zer egiten du hain margolan baliotsuak institutuan?

- a Bitorrek enkante batean erosi zuen bere bulegoan jartzeko.
- b Inork ez daki daki nola agertu zen han.
- c Egilea institutuan ikasitakoa da, eta garai hartatik dago han gordeta.

2. Nestor eta Jokin oso komikizaleak dira; hala ere,...

- a Jokin da bietan komikizale amorratuena.
- b Nestorri supergizakien komikiak gustatzen zaizkio bakarrik.
- c Segundoren liburu-dendan kuxkuxeatzearekin konformatu behar izaten dute, ez baitute komikiak lortzeko bitartekorik.

3. *Alkandora urdin argidun emakumea* negarrez margolaneko emakumea Marianen berdin-berdina omen da. Nor da Marian?

- a Gustuko duen institutuko neska bat.
- b Jokinen ama.
- c Nestorrek ezkutuan gordetzen duen CD bateko filmeko protagonista.

4. Zergatik iritsi ziren berandu margolana eraman behar zuen ikertzaileak?

- a Elurak geldiarazi zituen.
- b Bidean galdu ziren.
- c Nestorrek eta Jokinek dei faltsua egin zieten hitzordua aldatuz, bozetoa lapurtzeko denbora gehiago izateko.

5. Bozetoa lapurtu ondoren, gau batez institutuan sartu ziren berriz.

Zergatik?

- a Bozetoa itzuli nahi zuten.
- b Margolana lapurtu nahi zuten.
- c Margolana nork lapurtu zuen ikertu nahi zuten.

IZENA: MAILA:

MARGOLANA

Igor Elortza

6. Nola jakin zuten zuzendaritzakoek beraiek izan zirela gauez intitutuan sartu zirenak?

- a** Aureliok liburutegiko leihotik irten eta teilatura igotzen ikusi zituen.
- b** Jokinen linterna aurkitu zuten.
- c** Jokinek Bittorri kontatu zion, Aurelio institutuan ikusi zutela eta lapurretarekin zerikusia izan zezakeela ohartarazteko.

7. Mozorro festaren ondorengo astelehenean, intitutura joateko beldur da. Zergatik?

- a** Interpolekoek beren arrastoak hartu eta harrapatu egindo dituztela uste du.
- b** Anerekin gertatutakoarengatik lagunen txutxu-mutxu eta irriak entzun beharko dituela uste du, eta horrek gogaitu egiten du.
- c** Bittorrekin eta Anerekin topo egiteko beldur da.

8. Nor atxilotzen du Interpolek lapurretaren errudun gisa?

- a** Bittor, Historia eta Arte irakaslea.
- b** Sekta bateko burua eta merkatu beltzeko artelan salerosle talde bateko burua den txinatar bat.
- c** Dupont jauna, Louvreko aditua.

9. Noiz eta nola jakin zuen Nestorrek, bozetoaz gain, margolana ere ostu zutela?

- a** Bozetoa lapurtu eta hurrengo egunean, albistegietan entzunda.
- b** Hasiera-hasieratik zekien, berak lapurtu baitzuen.
- c** Bittorrek kontatu zien klasean.

10. Amaieran, nork daki benetan margolanarekin zer geratu den?

- a** Nestorrek.
- b** Nestorrek eta Jokinek.
- c** Nestorrek, Jokinek eta Bittorrek.

Erantzunak

MARGOLANA

Igor Elortza

Sortu

Aureliok den-dena zekien

E. E.

Ez nituen begiak mutiko haiengandik aldentzen, kontrolatuta neuzkan. Urduri zebiltzan. Lapurretarena sekretuan gordetzeko gai izan zitezen espero nuen baka-
rrik.

Ni ere urduri nenbilen. Gauez ezin nuen lorik egin, eta institutuko karrajoetan pasieran ibiltzen nintzen. Halako egun batean, zarata arraroak entzun nituen. Karrajoan korrika hasi eta mukizu haietako baten linternarekin estropezu egin nuen. Zertan zebiltzan institutuan? Liburutegian sartzen entzun nituen. Lasai-lasai, liburutegirantz abiatu eta atea giltzaz itxi nuen. Giltzaperatuta zeuden, eta horrek nire asmoa burutzeko nahikoa denbora emango zidan.

Banekien nora jo behar nuen. Institututik atera eta parez pare dagoen etxebizitza-
eraikinerantz abiatu nintzen. Azken pisura arte igo nintzen, ganbaretara. Atea institutuan erabili ohi dudan giltza maisuaz ireki eta barruan haritzezko kutxa bilatu nuen. Erraz zabaldu nuen. Han zegoen: *Alkandora urdin argidun emakumea negarrez*, nire zain. Motxilan gordeta nuen margolanaren kopiarengatik aldatu nuen. Ume-
moko hura sekula ez zen trukeaz konturatuko. Nirea zen. Neurea..

Erantzunak

MARGOLANA

Igor Elortza

1. Nestor Burma

E. E.

Nestor 16 urteko mutikoa da. Betaurrekoduna da, eta Jokinen ustez, Nestor Burma detektibearen itxura du. Behatzailea, zuhurra eta zentzuduna da. Gainera, adiskide ona eta fidela ere bada.

Nestor Burma komikietako pertsonaiari zor zaio ezizena. Nestor Burma Tardi marrazkilariak Malet idazlearen nobela poliziakoetatik komikietara eraman zuen detektibe entzutetsua da, eta Jokinen ustez, haren antza du.

Nestorrek eta Jokinek zaletasun berak dituzte eta ordu asko pasatzen dituzte elkarrekin. Lagun minak dira. Jokinek margolana lapurtzea proposatu zionean ezin izan zion ezetzik esan. Era berean, itobeharrean sentitzen denean, Jokin bere alboan dagoela eta konplizeak direla pentsatzeak lasaitu egiten du.

Nestor ezkutuan gordetzen duen CDa ikusten ari da. Bere ustez, bideoko protagonista, Marian, margolanean azaltzen den emakumearen berdin-berdina da.

Lapurreta egin aurretik mutil arrunt gisa zuen bere burua. Behin lapurreta egin eta korapilotik onik atera ondoren, ez du bere burua berdin ikusten. Balentria hori egiteko gai izan eta burutzea lortu duten mutilak dira orain.

2. Institutuko lagunak

E.E.

Jokin: Nestorren lagun mina da. Oso komikizalea da, ez du arkatza eta paperen bat baino gehiago behar, komiki eskuratu berri bat ez bada. Batman da bere pertsonaia kutunena, eta ahal duen guztietan Batmanen mozorroa jartzen du soinean. Grinatsua eta burubero samarra da, baina, aldi berean, egoera zailenetan neurritz jokatzeko gai da.

Jokinek artearekiko sentikortasun berezi bat duela esan daiteke, eta jende askok margolan batean ikusteko gai ez dena ikusteko gai da.

Bittor: Bittor Historia eta Arte irakaslea da. Ikasleekin konektatzen daki. Ikasleen artean irakaslerik maitatuenetariko bat da eta ikasleekin harreman ona du. Klaseetan ikasleen interesa piztea lortzen du.

Erantzunak

MARGOLANA

Igor Elortza

Nestorrek estimatu egiten du Bittor, eta estimu hori agerian geratzen da lapurreta egin ondoren Bittorrekiko kezka erakusten duenean.

Aurelio: Aurelio institutuko zaindaria da. Betaurrekodun gizon arrunta da, baina institutuetaiko zaindari askori gertatu ohi zaien bezala, ez ditu batere gustuko nerabeak. Horrek gizon izugarria bihurtzen du ikasleen begietara.

Nestorrek ez du uste Aurelio lapurreta egin eta merkatu beltzeko artelan salerosle talde batekin nahasteko gai denik. Hori dena baino simple eta inozoagoa dela uste du.

Ane: Institutuko neska guztien artean Nestorrek eta Jokinek egin duten lagun bakarra da. Neska zorrotza da, norbaiti hiru-lau gauza gogoratu behar zaizkiola iruditzen zaionean joan eta esaten dakitenetakoa. Beharbada, horregatik ez du izen onegirik gainontzeko mutilen artean, ezta gainontzeko nesketariko askoren artean ere. Nestorren arabera, ez da politegia, baina begirada ederra du.

Kepa Armiarma: Kepa, Armiarma lagun artean, Internetera engantxaturiko mutil jatorra da; ziberpunka, bere hitzetan. Ikasgelako atzeko lerroetan eseri ohi da, informatika aldizkariren bat edo zientzia fikziozko liburu bat esku artean duela.

Mikel: Astapetro hutsa, etengabe nabarmendu nahi duen horietakoa da. Egun osoa ematen du irakasleen erresistentzia gaitasuna erronkan jartzen, neskei berdekeriak esaten eta mutiloi bere zakilaren dimentsio ezohikoak gogorarazten. Bere aho zabala baino barrurago mutil ona darama preso eta ez dio sekula bizkarra eman laguntza beharrean egon den inori.

3. *La Gioconda* ebatsi zutenekoa

E.E:

Lapurreta burutzeko moduari dagokionez, oso antzekoak dira, lapurrek oso ondo ezagutzen baitzituzten margolanak gordetzen zituzten eraikinak. Arazo handirik gabe lapurtu eta atera ahal izan zituzten margolanak. Lapurren profilarri dagokionez ere, antzekoak dira: gazteak, grinatsuak. Hala ere, lapurreta egitera bultzatu zituen arrazoiak desberdinak dira: Nestor eta Jokin artelanak liluratu zituen, eta beraiena izateko gogo horrek eraman zituen lapurreta egitera; Peruggiarena, aldiz, abertzaletasun-ekintza bat izan zen gehiago. Margolanaren garrantziari dagokionez, Gioconda ospe handiagoko margolana da, eta Louvretik lapurtzea herri bateko institututik zerbait lapurtzea baino gogoangarriagoa da. Bai Nestor eta Jokin, bai Peruggia, nahiko ongi atera ziren lapurretatik. Italiarrak hilabete gutxi batzuk

Erantzunak

MARGOLANA

Igor Elortza

bakarrik igaro zituen espetxean, eta, liburuko protagonisten kasuan, poliziak bozetoa lapurtzearen zigortuko ditu bakarrik. Gainera, bi lapurretetan, poliziak lapurretekin zerikusirik ez zuten susmagarriak atxilotu zituen.

4. Lapurreta bat, hamaika emozio

E. E.

Jokinek bozetoa lapurtzea proposatu dio. Nestorrek, zalantza egin ostean, erronka onartu du. Grinatsu dago, burubero, sututa.

Behin bozetoa lapurtuta, institututik aldentzen ari dira. Tentsio eta larritasun handia pasatu ondoren arriskua bukatu egin da, eta lasaitu ederra hartu du.

Lapurreta ondorengo egunetan, inguruko guztiak lapurretaz hitz egiten ari direla iruditzen zaio. Estresatuta eta nekatuta dago, itota sentitzen da.

Institutuko festan, Anerekin maite-jolasetan ari da. Urduri dago, artega, gertatuko denaren irrikaz; eta, aldi berean, gustura dago, unea gozatzen ari da.

Anerekin egon ondorengo egunean, larrituta eta kezkatuta dago. Ez du ezer serio-rik nahi, baina Aneri esateko beldur da, ez baitu hura mindu nahi.

Liburutegiko apalategi baten atzean ezkutatuta daude, eta Aurelio Nestor eta Jokin harrapatzeko zorian dago. Harrapatuta sentitzen da. Gorputz osoa tenkatuta dauka, eta aldi berean beroa eta hotza sentitzen du. Ikara zainetan eta izerdi tantak kopetan.

Lapurretaren hurrengo egunetan bakarrik sentitzen da. Urduri dago, milaka emozio bizitzen ari da, baina ezin du inorekin horretaz hitz egin.

Polizia etxean dago. Ertzainak lapurretari buruz itauntzen ari zaizkio. Gertatutakoa behin eta berriz azaldu arren, ez diotela sinisten iruditzen zaio. Nekatuta dago, akituta.

Berak lapurtutako margolana begiztatzen ari da. Egindakoaz harro dago, asebeteta.

Ulermen-testa

1 b; 2 a; 3 c; 4 a; 5 a; 6 b; 7 c; 8 c 9 b; 10 b.